



Gomendioetxebarria (-a) etxebizitza

Aldacrak: Etxebarria
Ahozkoa: Komúntxebarri



43° 9' 55"

2° 34' 22"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la mitad de la casería de Gomendio Echevarria... situada en la barriada de Murgoitio jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende veinte y cuatro estados equivalentes a noventa y un metros cuadrados de planta solar..."

DJE 2/143 or. (1866)

Topatutako lehen arrasto dokumentala 1725ekoa da: *Gomendio Echevarria*. Bertan, Murgoitio kofradiaren baitan agertzen den baserri bati erreferentzia egiteko erabiltzen da izen hori. Ordutik aurrera, beti izen horrekin eza-gutua izan da, nahiz eta ahoskeran *Komúntxebarri* aldaera hartu. Baserria Elorriora doan errepidearen ezker aldean kokatuta dago, *Gomendiourigoen* (**Ikus Gomendiourigoen**) baserriaren azpialdean. Jabeek esandakoaren arabera, baserriaren jatorria XVI. mendean kokatu behar da, nahiz eta egungo eraikuntza XIX. mende hasierakoa izan. Lehen, baserria bi bizitzakoa zen, baina 100 urte baino gehiago dira etxe guztia batu zenetik.

XIX. mendeko tankera xumean egindako baserria da, eta bi isurkitako teilatuduna. Oso aldaketa handiak jasan ditu, kontuan hartzen baditugu fatxada nagusian susmatzen diren konponketa, leiho berriak eta eraldaketak. Ongien mantendu den aldea etxe azpira ematen duena da, hark gorde baititu leiho zaharrak. Horiek aurrean izango zituen antzekoak dira ziurrenik. Antzina omen zituen etxebizitza biak fatxadan ere suma daitezke. Izan ere, bi dira harrizko ateburudun atea, eta leihoen antolamenduan ere antezman liteke, ezker aldean mantendu direnekin. Harlangaitza da nagusi, eta kalitatezko harlandua ere, leihoetan eta atectan.